

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Datu pertsonalen fitxategiak aldatzea

Udalbatzak, 2016ko uztailaren 12an egindako ohiko bilkuran, Kanpezuko Udalaren datu pertsonalen fitxategiak aldatzea erabaki zuen. Hona hemen aldatetaren edukia:

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalen babesari buruzkoak (DPBLO), 20. artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazio publikoen titulartasuneko datu pertsonalen fitxategiak sortzeko, aldatzeko edo ezabatzeko ezinbestekoa da xedapen orokorra ematea, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratzea. Artikulu horretan, gainera, xedapenaren oinarriko edukia ere finkatu da.

Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (DBEB) sortzeari buruzko Legeak (Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa), 18. artikuluan, Datuak Babesteko Erregistroa sortzen du, eta ezartzen du bertan inskribatu behar direla legearen aplikazio eremuan dauden fitxategiak.

Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuko 2. artikulua ezartzen duenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek Datuak Babesteko Euskal Bulegoari (DBEB) eman behar diote datu pertsonalen fitxategien sorkuntza, aldatzea eta ezabatzea guztien berri, Datuak Babesteko Erregistroan sar ditzan. Horri buruzko xedapena edo erabakia jakinarazteko DBEBren zuzendariak 2005eko uztailaren 21eko Ebazpenean onartutako eredu normalizatua erabiliko du (EHAA, 165. zk., 2005eko abuztuaren 31koa).

1994ko irailaren 5eko 100 zenbakiko xedapenaren bidez, Erregistroa, Kontabilitatea, Errolda eta Zergadunak fitxategiak sortu ziren, eta gero aldatuak izan ziren hauen bidez: Sarrera eta Irteeren Erregistroa, Ekonomia eta Kontabilitate Kudeaketa, Errolda eta Zerga Kudeaketa eta Bilketa (ALHAOren 44. zenbakia, 2010eko apirilaren 23a).

Kanpezuko Udalean dauden datu pertsonalen fitxategiak aldatzeko eta horiek egitura administratibo eta operatiboan egungo errealiterara egokitzeko beharra sortu denez gero, xedapen hau eman behar da, datu pertsonalen babesaren alorrean indarrean dagoen legeriak xedatutakoarekin bat etorriz. Fitxategi berri bi sortzean datza.

6. fitxategia. Liburutegia

- a) Helburua: udal liburutegiko bazkideen datuak jasotzea.
- b) Pertsonak edo kolektiboak: udal liburutegiko bazkideak.
- c) Datuak jasotzeko modua: idatziz, eskaera eginez.
- d) Datuen jatorria: interesatua bera.
- e) Fitxategiaren oinarriko egitura: identifikazio datuak.
- f) Lagapenak: Eusko Jaurlaritzako Liburutegien saila.
- g) Fitxategiaren ardura duen administrazioa: Kanpezuko Udala.
- h) Eskubideak egikaritzeko: Kanpezuko Udala, Samuel Picaza plaza, 1 - Kanpezu (01110).
- i) Segurtasun neurriak: oinarriko maila.

7. fitxategia. Langabetuak

- a) Helburua: udaleko langabetuen datuak jasotzea.
- b) Pertsonak edo kolektiboak: udaleko langabetuak.
- c) Datuak jasotzeko modua: idatziz, eskaera eginez.
- d) Datuen jatorria: interesatua bera.
- e) Fitxategiaren oinarrizko egitura: identifikazio datuak.
- f) Lagapenak: ez dago.
- g) Fitxategiaren ardura duen administrazioa: Kanpezuko Udala.
- h) Eskubideak egikaritzeko: Kanpezuko Udala, Samuel Picaza plaza, 1 - Kanpezu (01110).
- i) Segurtasun neurriak: oinarrizko maila.

Xedapen hau ALHAOn argitaratuko da, eta Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinaraziko zaio helburu horrekin ezarritako prozedura normalizatuaren bitartez, DBEAren Datuak Babesteko Erregistroan inskribatzeko, eta gero Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Erregistroan integratzeko.

Santikurutze Kanpezu, 2016ko uztailaren 22a

Alkatea

IBERNALO BASTERRATXASKO